

San Ignazio 1556 450 Loiola 2006



ignaziotar lurraldea

www.ignaziotarlurraldea.com




EUSKADI
con mucho gusto


San Ignazio: XVI. mendeko Gipuzkoara bidaia.

Debagoiena • Urola Erdia • Urola Garaia



ignaziotarlurraldea





Arimako paisaietan ibili eta paisaia horiek Ezagutu eta Sentitu : XVI. mendera bidaia.

Urratsez urrats Ignaziotar Lurraldea ezagutuko dugu eta pertsonaia unibertsal batengana hurbilduko gara, erromes handia eta Jesusen Lagundiaren sortzaile izan zen San Ignazio Loiolakoarengana hain zuzen ere; haurtzaroa eta gaztaroaren zati bat igaro zituen lurraldean sartuko gara eta haren garaia, hau da, XVI. mendea ezagutuko dugu Gipuzkoako **Urola Erdia, Urola Garaia eta Debagoiena** eskualdeetan barneratuz.

Duela 400 edo 500 urteko aldian utziko gaituen jauzia proposatu nahi dizugu eta gure antzinakoak bizi izan ziren eszenategi berean bidaiatzera gonbidatu nahi zaitugu.

San Ignaziok ibiltari handitzat jotzen du bere burua: mundu honetako lurretan zehar egin zuen erromesaldia eta bere erromesaldi espirituala arimek laguntzeko bere ideala osotasunean lortzeko moduak eta bitartekoak bilatzeko modua da.

San Ignazioren irudia lurraldean oso sakon dago errotuta eta lurralde horretako ondare artistiko eta arkitektoniko zabalean **Errenazimenduaren izaera arnasten** da Humanismoaren etorrerarekin, arte zibil eta erlijiosoaren ez-ohiko garapenarekin eta bizimoduaren eta balio ekonomiko eta sozialen aldaketekin. Garrantzi handiko oinarria izan zen gure lurraldean.

Ongi etorri lurralde honetara eta bidaia honetara...

Argazki-oinak:
Azalean, Bidaurretako
monasterioko erretaularen
xehetasuna (Oñati)

Mirandaolako burdinola (Legazpi)
Udalatx (Arrasate)
San Ignazioren eskultura (Azpeitia)

San Ignazio **erromes.**


Loiolatik Arantzazura San Ignazioren bidetik.



Loiola, La Antigua, Arantzazu.
Hiru Tenpluen Ibilbidea.

*“Eta hala, bere anai batek
Oñatiraino joan nahi izan
zuen mando gainean eta,
bidean, Arantzazuko Andre
Mariari gaubeila egiteko
konbentzitu zuen; gauean
biderako indar berriak
hartzeko otoitz egin ondoren,
anaia Oñatin utzi zuen arreba
baten etxean eta, bera,
Navarreteerantz abiatu zen.”*

San Ignazio Loiolakoaren
autobiografia.
Erromesa.



San Ignazioren historia benetako erromes baten historia da.

1522. urtea zen. San Ignaziok Jaungoikoarenganako bideari ekin zion eta Lurralde Santura errome-saldian joateko prest zegoen. Ibilbide hark etapa asko zituen eta mendetan zehar askok jarraitu diete San Ignazioren urratsei.

Ibilbidean Urola Erdia, Urola Garaia eta Debagoiena eskualdeetako ingurune eta paraje ederrak pasatzen dira. Hau, San Ignazioren erromesaldi luzearen lehenengo etapa da, Arantzazuko Santutegiraino eraman zuena.

HIRU TENPLUEN IBILBIDEA

San Ignaziok egin zuen bezala, Loiolatik Arantzazurako ibilbidea egin daiteke Antiguako baselizatik pasatuz. GR-120 edo Hiru Tenpluen Ibilbidea da hori.

Hainbat eta hainbat mendez Debagoieneko biztanleek erabili duten bideari jarraituz ere iritsi daiteke Arantzazuko Santutegira: aipatutako bidea Arrasatetik abiatzen da eta, gaur egun, PR-GI 97 bidezidor gisa dago eratuta.



Loiolako Santutegia


Azpeitia (Urola Erdia)

Loiolako Santutegia da abiapuntua. Santutegia Loiolatarren dorretxearen ondoan dago, hau da, San Ignazioren jaiotetxearen ondoan eta Etxe Santua inguratzen du. XVII. eta XVIII. mendeen artean eraikitako arkitektura-multzo barroko paregabea da. Oinplano zirkularra du eta kupula ikusgarria eta linterna liraina gainean. Carlo Fontana Berniniren ikasleak diseinatu zuen Vatikanoko txiki modura eta Zaldia, Lecuna eta Ignacio Ibero maisu euskaldunek eraiki zuten.



“Loiola... lekuko eta parte-hartzaile izan zen goiko Erdi Aroko bandokideen arteko gerretan aurrea eta Ahaide Nagusiek hirien aurka egin zituztenetan gero. Loiola gorenera iritsi zenean hasi zen Dorretxea Santutegi bihurtzen, batik bat XVIII. mendearen lehen erdian eta XIX. mendeko azken urteetan.”

A. López de Aberásturi.
Loiolako dorretxea.



Aldare Nagusiko erretaula.

Kupularen barrualdea.

Santutegiaren kanpoaldea.



“Andre Mariaren tenpluaren eraikuntza bera ere kondairaz inguratuta dago. Ahozko tradizioaren bitartez transmititutako sinesmena dago oraindik herriko jendearen artean: “jentilek”, hau da, euskal mitologiako izaki erraldoiek Aizkorri mendilerrotik Antiguara jaurtitzen zituzten harriekin eraiki zela basiliza. Egia esan, basilizaren hormak altxatzeko erabili zen kareharria toki horretan egotea justifikatzeko modu bat baino ez da kontakizuna, izan ere, hainbat kilometroren bueltan ez baitago kareharririk”

L. P. Peña Santiago.
Zumarragako "Antigua".

Ama Birjinaren taila gotikoa.

Basilizaren barrualdea.


Barruko xehetasuna.

Antiguako Basiliza

Zumarraga (Urola Garaia)

Arantzazurako bidean Antiguako basiliza dago, bere barruko edertasun paregabearekin. Kanpoaldeari dagokionez, nolabaiteko defentsa-izaera du eta honako parte hauek dira aipagarrienak: XIV. mendeko erromaniko berantiarreko portada, XV. mendeko handitze-lanetan egindako kalbarioa eta iparreko eta ekialdeko fatxadetako saieterak.

Basiliza barruan Ama Birjinaren taila gotiko interesgarria dago eta baita balio artistiko handiko beste lau irudi ere. Haritzeko landa-itxurako eraikuntza du eta bisitarien begirada estaldura, habe, tirante, karel eta besoetara joaten da. Elementu horiek guztiak motibo geometrikoz eta emakume-buruz apainduta daude, izan ere, Euskal Herriko berant erdi aroko ohiko dekorazioa baitzen.





Arantzazuko Santutegia.

Oñati (Debagoiena)

Azkenik, ezin da zalantzan jarri San Ignazio Oñatiko Arantzazuko Ama Birjinaren Santutegian egon zela. Bere lehen etaparen helmuga eta gaubeila-tokia izan zen eta, zenbait historiagileren esanetan, garbitasun-botoa egin zuen bertan.

Ezer gutxi geratzen da antzinako santutegi hartatik. Gaur egun, Euskal Herriko arte garaikidearen erakusgarririk garrantzitsuenak da. Sainz de Oizak eta Laorgak eraikitako eraikin sakroaren silueta dotorea ageri da amildegia erdian. Diamantezko punta gisa landutako kareharrizko hiru dorreak nabarmentzen dira, paisaia karstikoaren jarraipen eta arantza zorrotzen isla balira bezala. Fatxadan, bestalde, Oteizaren 14 apostoluen frisoa nabarmentzen da.



*Zuk zer duzu,
Arantzazu?
Amets kabi,
otoitz leku...*

S. Mitxelena

Lucio Muñozen erretaula.

Arantzazuko Ama Birjina.

Apostoluen frisoa,
Oteizak egindakoa.





“....., Ignaziok Erroman ematen du denbora gehiena. Konpainia berriaren ardatza da. Izan ere, Konpainia etengabe ari da mugitzen! Paulo III.ak berretsi zuen (1540ko irailaren 27an) lehenengo kide-taldearen eztabaida luzeen ondoren –kideen artean izen ezagun asko zeuden, besteak beste, Xabierko Frantzisko, Diego Laínez, Pedro Fabro eta Alfonso Salmerón-. Gogo-jardunak zortzi urte geroago onartu ziren, 1548ko uztailaren 31n. Ordurako hedatzen hasita zegoen Konpainia: India, Europa, Brasil eta Japoniara..... Ignazio hil zenean mila inguru ziren. Jainkoaren bila zebilela etorri zitzaion heriotza, 1566ko uztailaren 31n”.

Loiolako San Ignazioren autobiografia.
Erromesa.

San Ignazio.


Sorlekuaren Ingurukoak

San Ignazio bere lurraldean...

1491an Iñigo Loiolakoa jaio zen Azpeitian. Gero Jesusen Lagundia sortuko zuenak eta euskaldun ospetsuenetakotzat joko zutenak egungo “**Etxe Santu**” edo **Loiolako dorretxearen eta Egibar baserriaren**, hau da, Maria Garin bere inudearen etxebizitzaren artean igaro zituen haurtzaroko egunak. Baserri hori ere bisitatu daiteke gaur egun, Ingurugiro Etxea baitago bertan. Etxe Santua Santutegiaren barruan dago, elizaren aldamenean. Horma sendoak ditu beheko solairuetan eta adreiluz egindako mudejar estiloko dekorazio dotorea goikoetan. Oñaz-Loiolatarren eguneroko bizimodua nolakoa zen ikus dezakegu bertan.

13 anai-arrebetatik gazteena zen Iñigo. Familia boteretsua zen eta harreman onak zituen. Bere esku zuen Azpeitiko parroikiko patronatua. Gaztelako Diruzain Handiak bere semeetako bat bidaltzeko eskatu zion Loiolako jaunari, bere etxean semetzat hartzeko. Iñigo izan zen hautatua eta 1505ean Arevalora joan zen. Han igaro zuen gaztaroa, izan ere, 1517 arte egon baitzen. Handik aurrera, gorte eta jauregiko gizona izan zen. Gero, Nafarroako Erregeordearen zerbitzura egon zen. Najera hartzen lagundu zuen eta Erregeordeak bake-misioa ere eman zion Gipuzkoan. 1521ean zauritu egin zuten Iruñeako gotorlekuan eta huraxe izan zen bere bihurtzeko prozesuaren abiapuntua. Loiolan egin zuen susperraldi luzea aproposa izan zen ikasi eta hausnartzeko eta hantxe ekin zion San Ignaziok kristau bideari.


Arantzazuko eta Montserrateko Santutegietatik igaro ondoren Lur Santura joan zen erromes eta, gero, Bartzelonan, Alcalan eta Parisen ikasi zuen. 12 urte eman zituen unibertsitatean ikasten. 1535ean, Paris utzi eta Loiolara itzuli zen isilean familia bisitatzera. Baina ez zuen ostatu hartu bere familiaren luxuzko etxean, Azpeitiko Madalenako ospitalean baizik. Egonaldi labur hartan, **Elosiagako Andre Mariaren ermitan** predikatu zuen aranondora igota eta baita **Azpeitiko Soreasuko Sebastian Donearen eliza nagusia** ere. Hantxe dago, bestalde, bere bataiarria. Loiolako Santutegiaren inguruan dago XIII. mendean eraikitako **Olazko ermita**. Ermitaren barruan, San Ignaziok debozio berezia zion Olazko Ama Birjinaren irudi ederra dago.



Santutegiaren ondoan dagoen “Etxe Santua”.

Olazko Ama Birjina.

San Ignazio Loiolakoaren bataiarria.





“Rodrigo Mercado de Zuazola apezpikuaren mausoleoak XVI. mendeko hilobi-monumentu handien ildoari jarraitzen dio. Monumentuok noble eta prelatuek eraikiarazten zituzten, salbamenerako bide laburragoa ziurtatzeko eta ofizio santuen maiztasunari etekina ateratzeko. Aldi berean, hildakoaren aldi bateko boterearen lekukotasuna ematen zuten”.

M. Fornells.
Oñatiko Unibertsitatea eta Errenazimendua.

Eliza barruko **Artea** XVI. mendeko erretaulak.

XVI. mendea jarduera handiko garaia zen eta, garai hartatik zerbait aipatzekotan, erretaula-arloko eraikitzeke grina zen. Grina horren ondorioz, Frantziako artista asko etorri ziren eta Gaztelako eskultore garrantzitsuek ere parte hartu zuten.

Oñatiko eta Bergarako multzoak dira aipagarrienak. Oñatin derrigorrez bisitatu beharrekoa da San Migelen Parrokian dagoen **Pietatearen kaperera**. Kaperera XVI. mendeko arteen sintesia da eta lehenbizi Granadako Errege Kantzelaritzako presidente eta gero Avilako apezpiku izan zen Rodrigo Mercado de Zuazola oñatiarrak eraikiarazi zuen. Errenazimendu goiztiarreko harribitxi hau honako hauek osatzen dute: batetik, Diego de Siloe gaztelarrak, dudarik gabe garai hartako eskultore eta arkitekto onenetarikoak izan zenak, **marmolez egindako apezpikuaren mausoleoak**; bestetik, tokia ixten duten burdin hesi **platereskoen forja** bikainak; eta, azkenik, egurrezko taila bikaina den **erretaulak**. Erretaula Valladolideko Gaspar de Tordesillasek egin zuen eta Jesusen Nekaldiko eta Mariaren bizitzako eszenak irudikatzen ditu eta candelieriren grutesko, aingeru-buru, txirla eta hegodun munstroz osatutako dekorazio delikatuarekin gozarazten digu. Handik ez oso urrun, Unibertsitateko eraikineko kaperan, XVI. mendeko maisulana dago: **San Migeli eta Espiritu Santuari eskainitako erretaula**. Gauzarik garrantzitsuenak bere jatorrizko polikromia eta Piarres Picart frantsesak egindakotzat jotzen den eskulturaren kalitatea dira. **Bidaurretako Hirutasun Guztiz Santuaren ermitako XVI. mendeko erretaula** ere ikus daiteke Oñatin.





Bergaran **San Pedroren parrokia** ikus daiteke eta baita bertan dagoen XVI. mendearen lehen erdiko **erretaula nagusi plateresko bikaina ere**. Oso dekoratu aberatsa du eta predelan kokatuta dauden Lau Ebanjelarien irudiak nabarmentzen dira euren kalitateagatik eta edertasunagatik. **Santa Marinako parrokia** ere Bergaran dago eta garai hartako zutabedun tenpluen eredu paradigmakoa da. Barrualdeari dagokionez, duela gutxi aurkitu diren Errenazimenduko margolanekin dekoratuta daude gangen zati batzuk eta aro barrokoko erretaula-multzo ikusgarria nabarmentzen da.

Debagoiena eskualdeko ibilbidea osatzeko, anatomia bikaineko irudiak dituen eta 1564an egindakoa den **Santiagoren erretaula** ikus dezakegu **Elgetako parrokian**. Aretxabaletako Korueta elizateko Santiagoren parrokia, Arrasateko Garagartzako San Migelen parrokia eta Antzuolako Uzarragako San Joan Bataiatzailearen parrokia ere bisita ditzakegu.



Urola Garaia eskualdeari dagokionez, batetik, **Itsasoko** parrokian **San Bartolomearen erretaula** interesgarria dago, Juan de Lizarazuk XVI. mendean egindakoa eta, bestetik, **Ezkion, San Migelen erretaula errenazentista**. Urretxun, bestalde, derrigorrez bisitatu beharrekoa da **Tourseko San Martin** eliza: alboko habearteetako gangek, erdiko habearteko 4 kupulek eta toskanar ordenako kapitulek harritura utziko gaituzte, izan ere, egurrez eginda daude eta 1570ekoak dira.

Ibilbidea amaitzeko, **Azpeitiko Soreasuko Sebastian Donearen** eliza nagusia bisita dezakegu. Han dago Martin de Zurbano Tuyko apezpikuaren irudi otoizgilea duen **hilobi platereskoa** –1520 ingurukoa-. Azkenik, **Azkoitian, Ama Birjinaren Jasokundearen** parrokia dago eta honako hauek dira bertako gauzarik aipagarrienak: **San Joan Bataiatzailearen alboko erretaula**, XVI. mendekoa eta **Ama Birjinaren Jasokundearen erretaula nagusia**, XVII. mendekoa.



Rodrigo Mercado de Zuazola apezpikuaren mausoleoa (Oñati).

Tourseko San Martín (Urretxu).

Sancti Spiritus Unibertsitateko erretaularen xehetasuna (Oñati).

Martín de Zurbanoren hilobi platereskoa. Soreasuko Sebastian Donearen parrokia (Azpeitia).

“Azkarate-Marutegi jauregia. Bai adreiluzko fatxada eta bai harlanduzko zatia modu erregularrean jarritako zeramikazko plakaz dekoratuta daude. XVI. mendearen lehen erdiko plakak dira. Alemaniatik ekarri ziren, seguruenik Nurenberg eskualdetik, eta bere garaian berogailu handi baten zatiak izan ziren; bere erliebe beiraztatuetan programa ikonografiko komplexua dago,…”

J.A. Gil Massa.
Bergarako hirigintza eta arkitektura zibila. XIII. mendetik XVIII.era.



...Dorretxe eta jauregi artean.

XVI. mendean, Erdi Aroko antzinako hainbat leinuk garrantzitsuak izaten jarraitzen zuten eta, aldi berean, gizartean azaleratzen ari ziren familia ugari zeuden.

Errenazimenduko izaera tokiko eliteentzako eraiki ziren egoitzetan gauzatu zen. Bestalde, ekonomiari buruzko erabakiak hartzen zituzten zentroekin beti zeuden harremanetan eta, azkenik, eskualdeko hainbat biztanlek errege-idazkari, eskribau edo beste hainbat lanbide zituzten, baina ez zuten euren jaioterriarekiko harremana eteten. Dorreetako aldaketak dira garai berrien adierazgarri. Dorreak militar-izaera galtzen eta etxebizitza-izaera hartzen joango dira eta aldaketak izango dituzte egituran. Inguruan dauden dorretxe eta jauregiek aukera emango digute Ignaziar Lurraldeko gehienetara joateko.

Azpeitian **Antxieta etxea** bisitatuko dugu, mudejar estiloko fatxada originala duen Juan de Antxieta musikagile ospetsuaren jaiotetxea. Azkoitian, berriz, **Baldatarren dorretxea** eta **Floreaga dorrea** aurkituko ditugu. Floreaga dorrea XVI. mendearen lehen erdiko jauregi mudejar bikaina da eta hiru solairuko arkudun galeria dotorea du fatxadan. Zumarragan, bestalde, **Legazpi dorretxea** bisitatuko dugu. Legazpi dorretxea Filipina uharteak kolonizatu zituen Miguel Lopez de Legazpiren jaiotetxea da. Handik hurbil, Urretxuko udalerrian, XVII. mendeko lehen urteetan eraikitako **Ipeñarrieta jauregi-etxe** sendo eta dotorea nabarmentzen da Irimo mendiaren magalean.



Bergarako hirigune historikoan etxetar eta dorre ugari daude. **Arrese eta Azkarate-Marutegi jauregiek** izkina egiten duten balkoiak dituzte; bigarrenak, gainera, Alemaniatik ekarritako XVI. mendearen lehen erdialdeko zeramikazko 53 plaka bikainez apainduta du San Pedro kalera ematen duen fatxada. **Aroztegi jauregiak** sarrerako arku handia eta motibo platereskoekin tailatutako atea ditu. Oso interesgarria da **Jauregi etxea**, fatxada nagusian duen 1500. urteko baxuerliebeagatik; **Olaso dorre** ahaltuak garita-pinakulu dotoreak ditu ertzetan; **Ondartza Komendadorearen etxeko** fatxada nagusian Karlos V.aren ezkutu inperiala ikus daiteke bere bi buruko arrano eta guzti. Bergarako **Egino-Mallea jauregia** eta **Gabiria eta Ozaeta dorreak** ere XVI. mendeko arkitekturaren eredu bikainak dira.

Arrasateko hirigune historikoan, San Juan Bataiatzailearen eliza ondoan, **Artazubiaga eta Andikano-Zelaa** etxetzarrak daude. Leintz Gatzagak ere Erdi Aroko hirigune interesgarri eta polita du; **San Ignazioren atetik** hirigunean sartu baino lehen, **Elexalde jauregia** ikusteko aukera izango dugu. Azkenik, Eskoriatzan, gaur egun museo den **Ibarraundi jauregia** bisitatzeko parada izango dugu eta, Aretxabaletan, Aozaratzako elizatean, Urkuluko ingurune naturalaren ondoan, **Otalora dorretxea**.



Aurreko orrialdean:
Azkarate-Marutegi jauregiko
plaka zeramikoa.(Bergara).
Arrese jauregia (Bergara).
Legazpi dorretxea (Zumarraga).

Lerro hauen aldamenean:
Floreaga dorretxea (Azkoitia).



“XVI. mendearen erdi aldera, Juan Miguelez de Araozek dohaintzan eman zituen bere jabegoak jesuiten penintsulako lehen ikastetxea sortzeko. Bere bizileku nagusia Oñatiko plazan zegoen eta komentu bihurtu zen. 1597an, jesuitek beste komentu bat sortu zuten Bergaran eta euren egoitza hara lekualdatzea erabaki zuten.”

I. Zumalde.
Oñatiti buruzko bilduma historikoa.

Goian, Unibertsitatearen fatxada.


Behean, klaustroaren barrualdea eta xehetasuna.

Izaera humanistikoa

Jakinduriaren eta ezagutzaren garrantzia...

Humanismoa eta Errenazimenduko ideiak hedatzen ari ziren. Kulturagatiko interesak eta ikasteari ematen zitzaion garrantziak unibertsitateak eta ikasle-egoitza nagusiak eta txikiak eraikitzea eragin zuen. 1540ko apirilaren 23an, Paulo III.a Aita Santuaren “Cum Attendi” bulda lortu zen Oñatin Sancti Spiritus Unibertsitatea sortzeko. Euskal Herriko lehenengo unibertsitatea zen, Rodrigo Mercado de Zuazolaren ekimenari esker sortutakoa, eta Salamanca, Valladolid, Bolonia eta Parisko unibertsitateen pribilegio berberak zituen. Teologia, Kanonak, Legeak eta Arteak irakasten ziren eta 1551ko Konstituzioetatik aurrera berritzen joan ziren Kapitulazioek arautu zituzten.

Oñatiko **Sancti Spiritus unibertsitatea** euskal errenazimenduko eraikin garrantzitsuenetakotzat jotzen da eta, bertan, atentzioa ematen du Pierres Picarti eginarazitako fatxadaren apaindurak. Sarrerako arkuaren gainean Rodrigo Mercado de Zuazolaren irudi otoizlaria duen nitxoia dago, bere mausoleoan sortutako eredua errepikatzen duena. Barruan, aipagarriak dira klaustroko eskailerak lotzen dituen erdi-puntuko arkuz eratutako bi solairuko patioaren klasizismoa eta bere proportzioen edertasuna.



Honako istorio hau 1580ko maiatzaren 3an gertatu zen Legazpin. Batzuek diote jainkoaren abisua izan zela eta beste batzuek miraria izan zela:

"Igande eguerdian meza entzun ondoren, lanean hasi ziren Mirandaolako burdinolan. Olagizonak biharamuneko egunsentira arte aritu ziren lanean eta hogeikatz-karga baino gehiago erre zituzten. 600 libra burdina baino gehiago ateratzeko adina beta prestatu zuten, baina gurutze itxurako burdina zati bat baino ez zuten atera. Gurutzeak hamabi edo hamalau libra inguru pisatu zuen. Iruñako Apezpikuak 1633an deklaratu zuen gertaera miraritzat".

Gatzaren Museoa
(Leintz Gatzaga)

Igartubeiti baserria
(Ezkio-Itsaso)

Mirandaolako burdinola
(Legazpi)

...Baserriko bizimodua, burdina-lana, gatz-ustiapena.

Ekonomiako sektore aktiboek gorakada handiak bizi izan zituzten XVI. mendearen bukaera arte. Ezkio-Itsasoko **Igartubeiti baserria** XVI. eta XVII. mendeetako egurrezko arkitekturaren eredu argia da eta baserrietan izaten zen bizimodura eta girora hurbiltzeko aukera ematen digu. Bergaran, Errenazimenduko baserri handien osagarrietako bat kontserbatzen da, XVI. mendearen lehen erdiko **Agarreko garaia** hain zuzen ere, haragi-, fruta- eta ale-biltegi gisa erabiltzen zena.

Burdinolen jarduera nabarmena da gure inguruan. Legazpiko **Mirandaola burdinolak** iraganera bidaiatzeko aukera ematen du, izan ere, garai hartako jarduera zen bezala berreraikitzen baitu. Errotak burdinolen premiazko osagarria ziren eta, Legazpin, **Igaraldeko errota** bisita dezakegu. Gazta eta ogia olagizonen oinarritzko janariak ziren eta artisau erara nola egiten ziren ikusi ahal izango dugu **Artzaintzaren Ekomuseoan** eta **Ogiaren Txokoan** hurrenez hurren.

Gatza, bestalde, funtsezko produktua zen Erdi Aroan eta, 1533an, gremioko konpainia bat sortu zen Leintz Gatzagan Santa Columba izenpean. 1542an, gatza egiteko eta saltzeko ordenantzak ezarri ziren. Gatzaren inguruko jarduera eta gatza edo garai hartan "urre zuria" deitzen zena lortzeko modu desberdinak **Gatzaren Museoan** ezagutu daitezke, Dorletako Santutegitik hurbil.



ignaziotar lurraldean

Honako hauek ere proposatzen dira:

a) Honako ibilbide hauek egitea:

a.1. Bisita gidatu didaktikoak baserrietan.


Bisita didaktikoak baserrietan: Erraizabal (Legazpi): Idiazabal gazta artisau erara egiten ikusten da; Haristizabal (Itsaso): ogia produktu ekologikoekin eta artisau erara egiten ikusten da; Aikur (Urretxu): ezitia artisau erara egiten ikusten da; eta Ipeñarrieta (Urretxu): abeltzaintza eta baratzeko produktuak.

a.2. "Ezagutu Debagoiena" bisita gidatuen programa.

Ikastetxeentzako bisita gidatu didaktikoak eta Debagoiena eskualdeko era guztietako taldeentzako bisitak. Proposamenak: Aretxabaletako elizateak, Erdi Aroko Debagoiena (Arrasate eta Elgeta), Debagoienako museoak, Bergara eta Antzuola, Oñati eta Arantzazu.

a.3. Bisita gidatuak Urola Erdian.

Bisita gidatuak Azpeitiko eta Azkoitiko hirigune historikoetan eta Izarraitz eta Ernioko espazio naturaletan.



Santiagoren erretaula (Elgeta)


Ipeñarrieta jauregia (Urretxu)

Langileen ibilbidea.
50eko hamarkadako egun bat
(Legazpi)

Jauregi etxearen fatxadako
baxuerlieba (Bergara)

Antxieta etxearen fatxada (Azpeitia)


San Ignazioren irudia (Azpeitia)





b) Museotara bisitak:

Iraganera bidaia dezakegu baporezko benetako trenean, Azpeitiko Trenaren Museoak antolatzen dituen antzinako tren-bidaiei xarma guztiaz gozatuz; mineralen mundua ezagutu dezakegu Urretxuko Museoan; Azkoitiko Iraurgiko San Martin Museoa edo Legazpiko Burdinaren Museoa bisita ditzakegu; Legazpin Langileen Ibilbidea ere egin dezakegu, 50eko hamarkadako egun bat nolakoa zen jakiteko.



c) Paisaiatz gozatu eta paseatu...

Eskualde horietako bidezidor-sareek baserri, landako auzo eta elizateetako bide zaharrak eta garai bateko trenbide-zatiak zeharkatzen dituzte eta aukera paregabea eskaintzen dute tokiko arkitektura ezagutzeko eta paisaiatz gozatzeko. Bidezidor horietako batzuek aukera ematen dute Urkuluko urtegiaren inguruan dauden Aretxabaletako Aozaratza, Areantza, Larrino eta Korueta elizateak edo Eskoriatzako Apotzaga eta Bolibar elizateak ezagutzeko. Leintz Bailara 17 elizatek eratzen zuten, 1497an Gipuzkoako Ermandadean sartu ziren arte.

Aizkorri-Aratz Parke Naturalak edo Izarraizko espazio naturalak ere merezi dute bisita egitea, fauna eta paisaiari dagokionez interes handiko leku ugari baitituzte.



Ibarraundi Museoa (Eskoriatza)

Baporezko trenean ibilaldia,
Trenaren Museo (Azpeitia)

Urkulu urtegia. Aizkorri-Aratz
Parke Naturala (Aretxabaleta)

Aitzorrotz (Eskoriatza)



San Sebastianetako danborrada
(Azpeitia)

Mairuaren alardea
(Antzuola)

Santa Luzia feria
(Zumarraga)



d) Festen tradizioa bizi:

Erlijioarekin lotutako festa-tradizio zabalari dagokionez, aipagarriak dira Oñatiko Corpus Christi eguna, XVI. mendean sortutakoa, Azkoitiko Aste Santua edo San Ignazioaren eta Antigua eta Arantzazuko Ama Birjinen jaiak.

Antzuolako Mairuaren alardeak, Azpeitiko San Sebastianen danborrada herrikoiak edo hainbat eta hainbat txokotan izaten diren erromeriek osatzen dute festa-aukera zabala.

Erromeriaz erromeria ibiltzea landa ingurunearekin lotura handiena duten festa-tradizioetara hurbiltzea da.






e) Gure gastronomiako produktu tipikoak dastatu...

Artzaitourren bitartez, artzainek euren baserrietako atea zabaltzen dizkiete jaten dutenaren jatorria ezagutzea gustatzen zaienei. Horrela, Idiazabal Jatorri-deiturako gazta onenak egiteko erabiltzen duten gaiaren kalitatea egiaztatzeko aukera dute.

Beste batzuen artean, Zumarraga-Urretxuko Santa Luzia eta Azpeitiko Santo Tomas feriak eta Arrasateko Santamasak aukera paregabea dira gure baserrietako produktu tipikoak dastatzeko.

Dastatu Azpeitiko ignazioak, Azkoitiko makarroiak, Bergarako tostoiak eta errellenoak, Oñatiko txokolatea edo Urola Garaiko buzkantzak edo odolkiak.





Oñatiko Corpus Christi.

Antigua ermitako erromeria.

ignaziotar lurraldearen Gida baliagarria

UROLA ERDIA:

Monumentu eta eraikin interesgarriak:

Loiolatarren dorretxea (Etxe Santua) eta Loiolako konplexu monumentalak.

Loiolako santutegia. Azpeitia.
Ordutegia: Bisita gidatuak,
egunero 10:00 – 13:00 eta 15:00 – 19:00.
Tel.: 943 025000 www.santuariodeloyola.com

Soreasuko Sebastian Donearen eliza nagusia. Azpeitia.

Eliz Kale.
Tel. 943 850843 turismo@urolaerdia.net

Ama Birjinaren jasokundearen parrokia. Azkoitia.

Jesusen Bihotzaren plaza.
Tel. 943 850843 turismo@urolaerdia.net

Olazko ermita. Azpeitia.

Loiolako etorbidea.
Ordutegia: Egunero irekita.

Madalenako ermita eta ospitalea. Azpeitia.

Madalena Auzoa. Kanpoko ikuspegia.

Enparan Dorretxea. Azpeitia.

Zelai Luze.

Elosiagako Ermita. Azpeitia.

Elosiaga auz. (Azpeitia-Tolosa errepidea, Urrakiko norabidea)

Balda Dorretxea. Azkoitia.

Balda Plaza.

Antxieta Etxea. Azpeitia.

Soreasuko Sebastian Donearen eliza nagusiaren ondoan.

Floreaga Jauregia. Azkoitia.

Aizkibel, 10.

Insausti Jauregia. Azkoitia.

Insausti parkea.

Loiolatarren armarrria
(Azpeitia)

Ama Birjinaren Jasokundearen parrokia
(Azkoitia)

Balda dorretxea
(Azkoitia)





Museoak:

Trenaren Museoa. Azpeitia.

Julian Elorza 8.
Ibilaldiak egiten dira baporezko trenean.
Tel. 943 150677 www.euskotren.es/castellano/museo

Ingurugiro etxea. Azpeitia.

Egibar baserria, Loiolako errepide zaharra.
Tel. 943 812448 www.ingurugiroetxea.org
ingurugiroetxea.azpeitia@azpeitia.net

San Martin Arkeologia Museoa. Azkoitia.

San Martin auz.
Tel. 943 857170 www.azkoitia.net

Beste hainbat elementu interesgarri:

Bisita gidatuak:

Uztailean, abuztuan eta iraileko lehen hamabostaldian, historiarekin eta kulturarekin zerikusia duten (hirigune historikoak, ondarea) eta naturarekin zerikusia duten (mendi-ibiliak, Izarraitz eta Ernioko espazio naturalak) bisita gidatuak antolatzen dira.
Tel. 943 850843 www.urolaturismo.net
turismo@urolaerdia.net

Eskualdeko bidezidor- sarea:

Balizatutako eta homologatutako 11 bidezidorrez osatutako sarea.
Tel. 943 850843 www.urolaturismo.net
turismo@urolaerdia.net

Festak:

Azpeitia: - San Sebastián (urtarilak 19-20), danborrada tradizionala.
- San Ignacio (uztailak 31)

Ferriak:


Azpeitia: - Santo Tomas feria (abendua 21)
Azkoitia: - San Andres feria (azaroa 30)



Iraurgiko San Martin museoa (Azkoitia)

Beizama

Izarraizko espazio naturala



Andre Maria Jasokundeakoaren
parrokia (Zumarraga)

Andre Maria Jasokundeakoaren
parrokia (Legazpi)

Ezkioko pikota

UROLA GARAIA:

Monumentu eta eraikin interesgarriak:

Antiguako Ermita. Zumarraga.

Bisita gidatuak. Antiguako errepidea z/g.
Ordutegia: Maiatzaren 1etik urriaren 31ra:
11:30-13:30 eta 16:30-19:30.
Urteko gainerako egunetan: larunbat, igande
eta jaiegunetan: 11:30-13:30 eta 16:00-18:00.
Astelehenetan itxita.
Tel.: 943 037914 / 943 720607 / 943 721589

Itsasoko Parrokia.

Itsasoko landa-nukleoa (astelehenetan itxita).
Tel.: 943 880315

Ezkioko Parrokia.

Ezkioko landa-nukleoa (asteartetan itxita).
Tel.: 943 720267

Tourseko San Martinen Parrokia. Urretxu.

Iparragirre Enparantza, z/g.

Igartubeiti baserria. Ezkio-Itsaso.

Bisita gidatuak. Helbidea: Ezkioko errepidea.
Tel.: 943 722978 igartubeiti@gipuzkoa.net

Legazpi Dorretxea. Zumarraga.

Artiz auzoa z/g

Ipeñarrieta Jauregia. Urretxu.

Santa Barbarako errepidea z/g (Urretxu)..

Museoak: (www.lenbur.com mirandaola@lenbur.com)
Tel.: 943 730428

Mirandaolako Burdinola. Legazpi.

Mirandaolako Parkea.

Burdinaren Museoa. Legazpi.

Mirandaolako Parkea.

Artzaintza Ekomuseoa. Legazpi.


Erraizabal baserria.

Ogiaren Txokoa. Legazpi.

Igaralde baserria.

Mineralen eta Fosilen Museoa. Urretxu.

Kultur Etxea.
Tel.: 943 038088 kultura.ur@urretxu.net





Beste hainbat elementu interesgarri:

Urretxuko hirigune historikoaren bisita gidatua.

Bisita gidatuak aldeztu aurretik eskatuta.
Tel.: 943 038088 kultura.ur@urretxu.net

Bisita gidatuak baserrietan.

Erraizabal (Legazpi); Haristizabal (Itsaso); Aikur (Urretxu); Ipeñarrieta (Urretxu)
Tel.: 943 730428
mirandaola@lenbur.com www.lenbur.com

Egun bat 50eko hamarkadan. Langileen ibilbidea. Legazpi.

Tel.: 943 730428 mirandaola@lenbur.com

Festak:

Zumarraga: Ezpatadantza (uztailak 2) Antiguako Ermita

Feriak:

Urretxu eta Zumarraga: Santa Luzia feria (abendua 13)

DEBAGOIENA:

Monumentu eta eraikin interesgarriak:

Arantzazuko Santutegia. Oñati.

Ordutegia: 8:30-20:00.
Bisita gidatuak aldeztu aurretik eskatuta.
Tel.: 943 780951 / 943 796463
www.arantzazu.org
turismo@debagoiena.net www.turismodebagoiena.com

San Migel parrokia. Pietatearen kapera. Oñati.

Bisita gidatuak aldeztu aurretik eskatuta (udan ordutegi berezia).
Informazio gehiago: Turismo bulegoa. San Juan kalea.
Tel.: 943 783453 turismo@oinati.org www.oinati.org

Bidaurretako Monastegia. Oñati.

Bisita gidatuak aldeztu aurretik eskatuta.
Informazio gehiago: Turismo bulegoa. San Juan kalea.
Tel.: 943 783453 turismo@oinati.org www.oinati.org

Sancti Spiritus Unibertsitatea. Oñati.

Turismo-informazio gunea Aste Santuan, udan eta zubietan. Urteko gainerako egunetan bisita gidatuak aldeztu aurretik eskatuta.
Informazio gehiago: Turismo bulegoa. San Juan kalea.
Tel.: 943 783453 turismo@oinati.org www.oinati.org

Ariznoako San Pedro Parrokia. Bergara.

Ariznoa plaza. Bisita gidatuak aldeztu aurretik eskatuta.
Tel.: 943 796463

Oxirondoko Santa Marina Parrokia. Bergara.

Oxirondo plaza z/g.
Bisita gidatuak aldeztu aurretik eskatuta.
Tel.: 943 796463



"Itziar" Jorge Oteizaren eskultura.
(Zumarraga)

Miguel Lopez de Legazpiren eskultura.
(Zumarraga)

Mirandaolako parkea
(Legazpi)

Ezkio.



Andikano-Zelaa etxea
(Arrasate)

Dorletako Santutegia
(Leintz-Gatzaga)

Gellako Elizatea
(Eskoriatza)

Santiagoren Erretaula. Elgeta.

Bisita gidatuak aldez aurretik eskatuta.
Andre Maria Jasokundekoaren parroikia
Tel.: 943 796463

Santiagoren Erretaula. Aretxabaleta.

Bisita gidatuak aldez aurretik eskatuta.
Koruetako elizatea.
Tel.: 943 796463

San Migelen Erretaula. Arrasate.

Bisita gidatuak aldez aurretik eskatuta.
Garagartzako elizatea.
Tel.: 943 796463.

San Juan Bataiatzailearen Erretaula. Antzuola.

Bisita gidatuak aldez aurretik eskatuta.
Uzarragako elizatea.
Tel.: 943 796463.

Bergarako hirigune historikoa.

Doaneko bisita gidatuak, honako jauregi eta dorre hauei buruzko aipamenak barne:

Arrese jauregia, Irizar jauregia eta Aroztegi etxea.

Barrenkalea, 30, 33 eta 7

Egino-Mallea Jauregia.

Masterreka, 1

Lauregi etxea.

Bidekurutzeta, 2

Izagirre etxea eta Ondartza etxea.

San Martín Agirre plaza, 5 eta 2

Olaso dorrea eta Azkarate-Marutegi jauregia.

San Pedro, 2 eta 4

Turismo bulegoa (Aste Santuan, udan eta zubietan).
San Martín Agirre plaza. Udaletxea.
Tel.: 943 779128 www.bergara.net

Artazubiaga etxea. Arrasate.

Iturriotz kalea

Andikano-Zelaa etxea. Arrasate.

Herriko Plaza

Arrasateko Erdi Aroko hirigunea.

Bisita gidatuak aldez aurretik eskatuta.
Tel.: 943 796463.

San Juan Bataiatzailearen parroikia. Arrasate.

Bisita gidatuak aldez aurretik eskatuta.
Tel.: 943 796463.

Elexalde jauregia. Leintz Gatzaga.

San Ignazio, 4

Agarreko garaia. Bergara.

Agirre auzoa



Leintz Gatzagako Erdi Aroko hirigunea.

Bisita gidatuak aldez aurretik eskatuta.
Tel.: 943 714792. www.leintzgatza.com

Dorletako Santutegia. Leintz Gatzaga.

Bisita gidatuak aldez aurretik eskatuta.
Tel.: 943 714792. www.leintzgatza.com

Museoak:

Ibarraundi Museoa. Eskoriatza.

Ibarraundi jauregia.
Teléfono: 943 715453
museoesk@teleline.es www.eskoriatza.net

Gatzaren Museoa. Leintz Gatzaga.

Astean zehar bisita gidatuak aldez aurretik eskatuta.
Teléfono: 943 714792
labidea@telefonica.net www.leintzgatza.com

San Miguel errota. Oñati.

San Juan Kalea (Turismo bulegoa).
Bisita gidatuak aldez aurretik eskatuta..
Teléfono: 943 783453
turismo@oinati.org www.oinati.org

Beste hainbat jarduera interesgarri:

"Ezagutu Debagoiena" Bisita gidatuen programa:

Bi motatako bisita gidatuak:
- didaktikoak, hezkuntza-maila desberdinetarako.
- era guztietako taldeentzako.
Aukerak: Erdi Aroko Debagoiena (Elgeta eta Arrasate);
Aretxabaletako elizateak; Bergara eta Antzuola; Oñati eta Arantzazu, ...
Debagoieneko Mankomunitatea. Turismoa.
Tel.: 943 79 64 63
turismo@debagoiena.net www.turismodebagoiena.com

Bidezidor-sarea. Oinez Debagoiena.

Balizatutako eta homologatutako 21 bidezidorrez osatutako sarea; material grafikoa.
Tel.: 943 796463
turismo@debagoiena.net www.turismodebagoiena.com

Bisita gidatuak naturan zehar. Oñati.

Uztailean eta abuztuan.
Tel.: 943 783453
turismo@oinati.org www.oinati.org

Festak:

Corpus Christi jaia. Oñati.
Mairuaren alardea. Antzuola. Uztaileko bigarren larunbatean
Santamasak feria. Arrasate. Abenduak 22.

Gastronomía:

Artzai tour. www.artzai-gazta.net/artzaitour



Otalora dorretxea.
(Aretxabaleta)
- Urkulu urtegiaren ondoan-

Asentzioko ermita (Elgeta)

Uzarraga (Antzuola)

Turismo bulegoak:

UROLA ERDIA:

Loiolako turismo-informazio gunea .

Udan irekitzen da.
Tel. 943 850843 turismo@urolaerdia.net
www.urolaerdia.net

UROLA GARAIA:

Urola-Garaiko turismo bulegoa Mirandaolako parkea.

Tel. 943 730428 mirandaola@lenbur.com
www.lenbur.com

DEBAGOIENA:

Debagoieneko turismo- informazio gunea Arantzazuko Santutegia. Oñati

Aste buruetan, zubietan, Aste Santuan eta udan irekita.
Tel. 943 796463 turismo@debagoiena.net
www.turismodebagoiena.com

Bergarako turismo bulegoa..

San Martín Agirre plaza. Udaletxea.
Zubietan, Aste Santuan eta udan irekitzen da.
Tel. 943 779128 www.bergara.net

Eskoriatzako turismo bulegoa.

Ibarraundi jauregia.
Tel. 943 715453 museoesk@teleline.es
www.eskoriatza.net

Leintz Gatzagako turismo bulegoa.

Tel. 943 714792 labidea@telefonica.net
www.leintzgatzaga.com

Oñatiko turismo bulegoa.

San Juan kalea.
Tel. 943 783453 turismo@oinati.org
www.oinati.org

Beste telefono interesgarri batzuk:

UROLA ERDIA:

Iraurgi Lantzen S.A.

Aizkibel, 16. Azkoitia
Tel. 943 850843 turismo@urolaerdia.net
www.urolaturismo.net

UROLA GARAIA:

Zumarragako udala.

Tel. 943 729022
informazioa.zu@zumarraga.net

DEBAGOIENA:

Debagoieneko Mankomunitatea. Turismo.


Nafarroa etorbidea, 23. Arrasate.
Tel. 943 796463 turismo@debagoiena.net
www.turismodebagoiena.com

Arrasateko Udala.

Enparan Dorretxea
(Azpeitia)

Iparragirren omenezko
eskultura (Urretxu)





ignaziotar lurraldea



Distantziak:

- Loiolako Santutegitik:** Donostia (45 Km.), Bilbo (70 Km.), Vitoria-Gasteiz (75 Km.), La Antiguako Baseliza (20 Km.), Arantzazuko Santutegia (55 Km.)
- La Antigua Baselizatik:** Donostia (57 Km.), Bilbo (71 Km.), Vitoria-Gasteiz (56 Km.), Loiolako Santutegia (20 Km.), Arantzazuko Santutegia (26 Km.)
- Arantzazuko Santutegitik:** Donostia (85 Km.), Bilbo (82 Km.), Vitoria-Gasteiz (55 Km.), Loiolako Santutegia (55 Km.), La Antiguako Baseliza (26 Km.)